



TABAKO ETA KUTSADURA

Eztabaida eta taldean sormenez ekitea

Informazioa:

Defini dezagun kutsadura: produktu solido, likido edo gasezkoak gehiegian erabiltzea, edonola delarik ere oker, eta, horregatik, sistema ekologikoan arriskua edo kaltea eragitea, natura desorekatuz. Hortaz, kutsatzaileak hirutan daude sailkaturik: solidoak, likidoa eta gasezkoak.

Kutsatzaile solidoak: Zaborra dira kutsatzaile solidoak. Lurzorua, haizea eta ura kutsatzen dituzte.

Kutsatzaile likidoak: Ur beltzak, industria-hondakinak eta ibai, laku eta itsasoetan gertatzen diren erregai-isurketak; hainbat espezie hiltzea eragiten dute.

Gasezko kutsatzaileak: Petrolioaren errekuntza kaskarrak eragiten dituenak (industriek, automobilek... isurtzen dituzten gasak...), landare eta animalien hondakinen errekuntzatik datozenak, zaborretako gasak eta abar.

Baliabideak gaizki kontsumitzea eta kutsadura dira gaur egun planetak dituen ingurumen-arazoen arrazoi nagusietako bat.

Garrantzitsua da herritarrek **kutsadura nondik datorren** jakitea, hartara beren pausuk artez zuzen ahal izan ditzaten, ingurumen-arazoak larriagotu gabe.

http://lse.mundosigno.com/campus/comun/materiales/medio_ambiente/modulo1/m1contaminacion.html

(Iturria: 1 unitate didaktikoa: Ingurumenerako sarrera. Andaluziako Junta)

Kutsadura-eragileetako bat tabakoa da. Garapen-bidean diren herrialdeetan, tabako-ekoizpenak **baso-soiltzearen** % 5 inguru eragiten du. Osasun-arazoez gainera, mundu guztian, baso-suteen eragile handienetako bat ere bada tabakoa, mutxikin gaizki itzaliak direla-eta.

Tabakismoa tabakoa erretzeko adikzioa da. Osagai aktiboenetako batek eragiten du batez ere: nikotinak. Tabakoa sarri kontsumitzeak gaixotasunak eragiten ditu, kontsumitzailearen osasunaren kalterako. Erretzen ari direnen leku berean dauden



gainerakoei ere kalte egiten die (**tabakismo pasiboa, tabako-kea edo bigarren eskuko tabakoa**).

Hirugarren eskuko tabakoa ere badago (HET): zigarroa itzaltzen dugunean geratzen den kutsadura. Kearen hondarrak dira, oso partikula txikiak, azaleretan itsatsita geratzen direnak.

Eta **laugarren eskuko tabakoa (LET)**: mutxikinek sortzen duten kutsadura. Hondakin horiek kalean amaitzen dute, eta, arrastaka-arrastaka, azkenean itsasora iristen dira.

Proposamena:

Erakutsi nola ikusten duzuen tabako-kutsadura zuen herrian (leku irekietan eta itxietan) eta naturan. Horretarako, taldeka, kartel bat sortu behar duzue, Dina-4 edo A-3.

Talde bakoitzak gaiaren alderdi bat landuko du: tabakismo pasiboa, hirugarren eskuko tabakoa edo laugarren eskuko tabakoa.

Beharrezko materiala:

Unitate didaktikoa; eramangarria eta kanoia; power-point bidezko aurkezpenak, taldeka eztabaidatzeko.

Ordenagailua/Eramangarria, talde-lana egiteko.

Gelan lan egiteko materiala: A-3.

Helburuak:

Gogoeta egitea, jabetu gaitezen gizakion jokaerak nola eraldatzen eta kutsatzen duen ingurumena.

Eta aztertzea jokaera eta ohitura txarrek zer-nolako ondorioak eragiten dituzten bai norberaren bai besteen osasunean bai ingurumenean.

Jarduera:

Hasierako azalpen bat proposatuko da, tabakoa eta kutsadura jorratzen hasteko. Irudiak ikustea eta eztabaida proposatzea.

Eztabaida eta talde-lana.

Kartelak egitea, gai hauetan oinarriturik: kutsadura, bigarren eskuko tabakoa, hirugarrena eta laugarrena.



Proposamenak :

Talde bakoitzak bere sormen-lana egin ondoren, talde bakoitzeko ordezkari batek ikasgelari azalduko dio beren proposamenaren emaitza.

Egindako lan guztiak ikasgelako iragarki-taulan edo ikastetxeko gainerako ikasleek ikusteko moduko gune batean jarriko dira (sarrera, eta abar).

Esteka interesgarriak:

<https://www.consumer.es/medio-ambiente/tabaco-asi-dana-al-medio-ambiente.html>

<https://www.consumer.es/medio-ambiente/colillas-un-problema-ambiental-peor-del-que-imaginas.html>

<https://proyectolibera.org/wp-content/uploads/2018/07/Informe-Colillas-LIBERA-2018.pdf>

<https://www.ngenespanol.com/naturaleza/como-dana-el-tabaco-al-medio-ambiente/>

http://pdi.topografia.upm.es/cepeda/Curso2792/Medio_Ambiente/Medio_Ambiente/MANUAL.PDF